

Langileen Eguna

Alderdi, 274. zk., 1972-04.

Gizonak bere izerdiaren truke irabazi du bizitzeko bear duen ogia.

Izerdia atera asten duen lana ez da, ordea, beti berdiña izan: lenengo gizona eiztaria zen; gero, lurrari lotzen asi zenean, artzaia; eta lurretik janaria ateratzeko lanak egiten ikasi zuenean, nekazaria.

Nekea eman du bai, beti ogia irabazteak.

Garai oietako ogia irabazten bakoitza berera ibiltzen zen; batzuk besteak baiño nagusiago, eta gizon batzuk besteak baiño morroiago izaten noiz asi ziren jakitea ez da erreza; eta orren billa orain asiko bagiñe, urrutigi eramango giñuke; nola nai, oraindik lurra zabala zen eta biztanleak urri, eta ba zegoen nora igesi egiña. Noizpait asi ziren batzuk ausartagoak, besteak lapurragoak, besteak indartsugoak, norberaren ordeztuak besteak lanean jartzeko indarra edo abilidadea erakusten, eta arezkero, aspaldi gero", asia da langillea bere burua defenditzen.

Langilleak ez du legea geienetan bere alde izan.

Emezazpigarren gizaldian anima salbatzea zen gizonak zuen eginbear aundiena; Elizak ematen zituen onetarako legeak, eta Estaduek ere aalegiñan laguntzen zieten ontan" Langilleak ogi-bideak eta indarrak nola zaindu bear zuenaren kezka bakoitzak bereari zegokion oraindik. Emezortzigarrenean asi ziren arrazoi billa, animaz gero buruzko arrazoia nundik arkitu eta zaindu bear zanaren kezka bizian, baiña emeretzigarren gizaldiak oraindik gizona, gizon bakoitza, bere buruaren eta familiaren ogi bila! bakarka zebillen, uste bait zuten oraindik bakoitzak berera jo eta gauzak bere giza konponduko zirela; baiña gizaldi ontan asten da gizona elkar billatzen, lana-ren balioa neurtu eta gizonaren lan neurriak eta lan-irabaziak nolakoak izan bear zuten billa. Alaxe konturatu zen langillea, garai onetarako ola aundietan langilleak pillotzen asi ziren neurrian, elkartu egin bear zutela.

Arrezkero eta gaur arte ikasi du gizonak gizona eta gizonaren lana nola defenditu: elkartuta.

Ez dira gizon guziak bide batetik ibili aspaldi ontan; elkartzeko bideak ere asko bait dire; batez ere arazo batek zatitu ditu langilleak: askatasuna (gizonak betidanik billa ibili den askatasuna) zer neurritan gorde. Batzuk langilleak lana-neurri duela duen babesena naikoa dute eta besteak, berriz askatasunaren babesena ere nai.

Ezin aal dire bi babesak batean lortu?

Uste ontan dabil langille euskalduna aspaldi; biak askatasuna eta giza-gaitasuna bear bait ditu gizon eta langille denak. Onetarako elkartasuna da bearrezko, batez ere diktadurak oinperatuta dauzkan errietan, gurea dagoen bezala. Oraindik ba dira, bai, gure errian bakoitzak berea egin eta aurrera aterako direla uste duten langilleak. Gero eta urriago ala ere; langilleak bat egiten ez duten bitartean ez baita langillearen aldeko indarrik, eta indarrik gabe ez bait da jutzirik.

Erri txikia geranez, elkartuta bakarrik lortuko dugu askatasuna, eta elkartuta bakarrik lortuko dugu gure lanak merezi duen errespetoa eta saria.

Erakutsi bear dugu Askatasuna (gizonen eta errien askatasuna) eta justizia bat bakarrik direla.